



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/24

Aldundiak proiektu pilotua hasiko dau, etxe barik dagozanak pertsona bakarrentzako etxebizitzetan hartzeko eta arretea emoteko

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatuak “Habitat Bizkaia” programea aurkeztu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, “Housing First” metodologian oinarrituta dagoan ekimen barria. Programa horren bidez, Aldundiak “20 pertsonaren” gizarteratze prozesuari hasiera emon gura deutso, pertsona bakarrentzako etxebizitzetan bitartez. “Hiru urte” etxebizitza barik eta “gizartean bazterketa maila altua daben pertsonen” egongo da zuzenduta, zehaztu dauenez.

Proiektua “barritzailea” da Bizkaian, eta “emaitza onak” emon ditu munduko beste leku batzuetan. “Housing First” (lehenengoa etxebizitza) filosofian oinarrituta dago. Filosofia horren lehenengo esperientziak 90eko hamarkadan egin ziran Estatu Batuetan, eta bertatik Europara heldu zan 2001ean. Espainiako estaduan antzeko proiektuak hasi dira Madrilan, Bartzelonan eta Malagan.

Gizarte arloko laguntasuna eta esku-hartzea jasoko dituan gizarteratzeko programa “osoa” eskiniz “Etxebizitzarik ez eukitearen” fenomenoaren lantzen dauen “Habitat Bizkaia” programea Eskumaldean proba da lehenengo aurtun bertan, eta horren ostean, arrakastea egiaztatu eta gero, Lurraldeko beste eskualde batzuetara zabalduko da.

Programa pilotua, sektore horretan 25 urteko esperientzia dauen Zubietxe alkarteak gauzatuko dau, behar egiteko metodoa eskintzen dauen RAIS fundazioaren aholkularitzaz. Proba fase horretarako, Laespadak zuzentzen dauen sailak "249.768 euro" inbertiduko ditu. Diru-kopuru horretan laguntasuna eta gizarte eta hezkuntza arloko prozesua sartzen dira, eta baita etxebizitza horreek merkaduan librean alokatzearen kostua be. Laespadak adierazo dauenez, plaza bakoitzeko inbertsinoa ez da bizitzeko beste baliabide batzuen batez-besteko kostuaren “erdira” helduko. “45 eurokoa” izango da, egoitzetako ereduaren kostua “plaza eta egun bakoitzeko 113 eurokoa” dan bitartean.

BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako taldeek “pozik” jaso dabe Bizkaia Goazen 2030 planean “ardatz estrategiko” moduan jasotzen zan eta diputatuak aurkeztu dauen programea. “Housing First” ekimena zein unetan dagoan azaldu daian Laespadaren agerraldia eskatu dauen EH Bilduk, etorkizunean eskintzea zabaltzea eskatu dau, eskualde “guztietara” heldu daiten. Josu Unanue bozeroaleak, familientzako etxebizitzak be programa barruan sartzeari planteatu dan soluzioan pertsona bakarrentzako etxebizitzak jasotzen dira, eta GKEk programan parte hartzeko aukerea izatea aztertzea eskatu dau. Bere eretziz, programan sartzeko etxe barik 3 urte egon beharra denpora “larregi” da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PP taldeko batzordekidearen ustez ekimena “interesgarria” da, batez be “hezkuntzara eta enplegura” zuzendutako programakaz batera gauzatzen bada. Etxebizitzak egongo diran auzoetan Aldundiak aurretiazko jakinarazpeneko jarduketaren bat egingo ete dauen eta Eskumaldea aukeratu izanaren zergaitiak zein diran galdetu dau Eduardo Andrés batzordekideak.

Proiektua “norabide onean doa”, esan dau Podemos Bizkaiako Mikel Isasik, baina bere eretxiz aurrekontua “txikia da, lehenengo urtea dala ulertzen dodan arren”. Sektoreko beste alkarte batzuekaz be behar egiteko eskatu dau.

Alexia Castelok (PSE-EE), etorkizunean Eusko Jaurlaritzagaz eta udalakaz erakundeen arteko lankidetzeta gauzatu daitela eskatu dau, proiektuaren barruan etxebizitza publikoak sartzeko, baliabide publikoak optimizetako helburuz. Lehenengo esperientzia hori merkadu librean egingo da, prozesua azkartzeko, baina Laespadak argitu dauenez, beste erakunde batzuekaz izan beharreko lankidetzeta etorkizunean landuko dan ildoan izango da.

EAJ-PNV taldeak, Ana Esther Furundarena ordezkariaren bitartez adierazo dauenez, esperientzia horren ebaluaziora itxarongo dau “bere eretxia emoteko”. Dana dala, programea hiru ardatzetan dagoala oinarrituta esan dau: “etxebizitzan, gizarte arloko laguntzan eta gizarte arloko esku-hartzean”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
24/06/2016

La Diputación inicia un proyecto piloto para alojar y atender a personas sin hogar en viviendas unipersonales

La diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada ha presentado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia el programa “Habitat Bizkaia”, una nueva iniciativa basada en la metodología “Housing First” con el que la Diputación pretende iniciar un proceso de inclusión de "20 personas" a través de viviendas unipersonales. Irá destinado a “personas en situación de alta exclusión social” con “tres años” sin hogar, ha precisado.

El proyecto es “innovador” en Bizkaia y ha dado “buenos resultados” en otras partes del mundo. Basado en la filosofía "Housing first" (la vivienda, lo primero), las primeras experiencias se desarrollaron en los años 90 en EE.UU., para desde allí llegar a Europa en 2001. En el Estado español se han iniciado ya proyectos similares en Madrid, Barcelona y Málaga.

El programa “Habitat Bizkaia”, que aborda el fenómeno del “sinhogarismo” ofreciendo un “completo” programa de inclusión que incluye acompañamiento e intervención social, se probará primeramente en la Margen Derecha a partir de este año, para, desde aquí, una vez cotejado su éxito, extenderlo a otras comarcas del Territorio.

El programa piloto lo desarrollará Zubietxe, una asociación con 25 años de experiencia en el sector, bajo el asesoramiento de la fundación RAIS que aporta el método de trabajo. Para esta fase de pruebas, el departamento que dirige Laespada invertirá "249.768 euros", cantidad en la que se contemplan el acompañamiento y el proceso de intervención socioeducativa, así como el coste del alquiler de la vivienda en el mercado libre. Laespada ha señalado que la inversión por plaza "no llega a la mitad" de la media de otros dispositivos residenciales. Será de “45 euros”, frente a “113 euros plaza/día” del modelo residencial.

GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros han acogido con “satisfacción” el programa presentado por la diputada que se incluía como “eje estratégico” en el plan Bizkaia Goazen 2030. EH Bildu, que había pedido precisamente la comparecencia de Laespada para que explicara la situación en la que se encontraba la iniciativa “Housing First”, ha demandado que la oferta se amplíe en el futuro para que llegue a “todas” las comarcas del territorio. Su portavoz, Josu Unanue, ha reclamado que se incorporen viviendas para familias –la solución planteada es para una persona- y la posibilidad de que las ONGs participen en el programa. A su juicio, el tiempo de 3 años sin hogar para acceder al programa es “demasiado”.

En las filas del PP, su apoderado ha calificado la iniciativa de “interesante” sobre todo si va unida con programas “educativos y de empleo”. El juntero Eduardo Andrés ha preguntado si la Diputación realizará alguna actuación de comunicación previa en el vecindario y el motivo de que se elija la Margen Derecha.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El proyecto “va en la buena dirección”, ha dicho Mikel Isasi, de Podemos Bizkaia, para quien el presupuesto es “escaso, aunque entiendo que es el primer año”. Ha pedido que se trabaje también con otras asociaciones del sector.

Por su parte, Alexia Castelo (PSE-EE) ha pedido que en el futuro se lleve a cabo una colaboración interinstitucional con Gobierno vasco y ayuntamientos para activar viviendas públicas al proyecto, con el fin de optimizar recursos públicos. Esta primera experiencia se llevará a cabo en el mercado libre para agilizar el proceso, aunque Laespada ha matizado que la relación con otras instituciones será una futura línea de trabajo.

El PNV, en boca de su representante Ana Esther Furundarena, ha señalado que "esperarán" a la evaluación de este ensayo “para dar nuestra opinión”, si bien ve acertado que el programa esté basado en combinar vivienda con ayuda e intervención social.